



# Odola kantari

Unai Elorriaga


Upaingoia, 52

978-84-9172-457-5

2025 - 152 or. - 13 x 19 cm

16 €

Beti esan izan da gai nagusi bi daudela literaturan: maitasuna eta heriotza. Iritzi zabaldua da, gainera, maitasunari buruz idatzi izan dela gehien, maitasuna izan dela protagonista poemetan, bertsoetan, kopletan, kantuetan... Saiakera hau, ordea, ideia horri aurre egiten ahaleginduko da, heriotzari asko kantatuko zaiola erakutsi nahi du, gerrari, hilketei, odolari. Izan ere, odola beti kantari. Hori gutxi balitz, sorpresa bat ere badakar liburuak: orain arte anonimotzat hartu dugun bertso-sorta baten («Muñagorriren bertsoak») egilea deskubritu dugu... Baina ez da hor kontua amaitzen: sinesteko zaila bada ere, gaur egun munduan oso izen handikoa den pertsona baten senidea izan zen sortzaile hura. Horra liburuaren muina beraz: euskal literaturan ekintza bortitzek, odolak azken finean, izan duten presentziaren azterketa kronologikoa eta bertso-sorta ezagun baten egiletzaren bilaketaren emaitza.



**UNAI ELORRIAGA**  
(Bilbo, 1973)

Idazlea eta irakaslea da. Haur literatur lanak eta antzezlan bat idatzi eta hainbat itzulpen literario badiu ere, bere eleberriengatik da bereziki ezagun. Zazpi kaleratu ditu gaur arte: *SPrako tranbia* (Elkar, 2001, Espainiako Narratiba Sari Nazionala), *Van't Hoffen ilea* (Elkar, 2003, Igartza Saria), *Vredaman* (Elkar, 2005), *Londres kartoizkoa da* (Elkar, 2009), *Iazko hezurrak*, (Susa, 2014), *Iturria* (Susa, 2019) eta *Francesco Pasqualeren bosgarren arima* (Susa, 2024, Euskadi Saria). *Odola kantari* da bere lehen saiakera eta bere lehen liburua Pamielan.